


EAEko hamar gaztetik zortzik egunero edo ia egunero musika entzuten dute

2007an eta 2008an [Kulturaren Euskal Behatokiak](#), beste hainbat gaien artean, musikari buruzko datuak jaso zituen eta orain [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu ditu. Datu horien arabera, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %83k musika entzuten dute egunero edo ia egunero.

Ehuneko hori biztanleria osoari dagokiona (%55) baino askoz handiagoa da.



Gainera, inkesta egin aurretiko hiruhilekoan musika kontzerturen batera joan zirela diote gazteen %30ek. Kontzertuetara sarriago joaten dira 20 urtetik beherakoak (%42).

Biztanleria osoarekiko aldea handia da berriro, aurreko hiruhilekoan kontzertuetara joan direla diotenak %17 baitira.

Bestalde, 2006ko datuei erreparaturaz, ["Euskal Kultura"](#) izeneko ikerketatik ateratakoak, hain zuzen ere, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %29k musika tresnaren bat jotzen dakite. Portzentaje hori biztanleria orokorrarena (%16) baino dezente handiagoa da.